



# ARANTZAKO UDALA

---

## OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Arrunta

**Eguna:** 2024.08.02

**Ordua:** 16:30

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

**Bertaratuak:**

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu. *Gai ordenako 5. puntuan atera da eta 6. puntuan sartu da.*
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.

**Bertaratu ez direnak:**

- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIK:**

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespina.
2. 2024. urtean Bortziritako igerilekuetako bonoak ordaintzeko dirulaguntza deialdiaren onespina.
3. 2, 3,4 eta 5/2024 aurrekontu aldaketa onespina.
4. Alkate Ebazpenak.
5. Pelle Ttiki haurtzaindegi zerbitzu kontratua ebaztea onestea.
6. Amekurrun, Argastasoro eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamendua egiteko bigarren enkantea arautuko duen plegu arautzaileen eta prozedura abiaraztearen onespina, %10eko beherapenarekin.
7. Eskaerak eta galderak.



# ARANTZAKO UDALA

## 1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2024ko uztailaren 5eko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

## 2. 2024. URTEAN BORTZIRIETAKO UDAL IGERILEKUETAKO BONOAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN ONESPENA.

Idazkariak 2024. urtean Bortziritako udal igerilekuetako bonoak ordaintzeko dirulaguntza deialdiaren oinarriak azaldu ditu.

Era berean, dirulaguntza deialdia egiteko Dirulaguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3. artikuluan xedaturikoa jarraiki egin dela azaldu du. Horrela bada, 17.3.b) artikuluan xedaturikoaren arabera, BDNS bidetik deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela adierazi du.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- 2024. urtean Bortziritako udal igerilekuetako bonoak ordaintzeko dirulaguntza deialdia onestea.
- 2.- Deialdiaren oinarriak BDNS bidetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- 3.- Deialdiaren nondik norakoak Arantzako Udalak hala deritzon hedabideetan zabaltzea, bizilagun orok horren berri izan dezan.

## 3. 2, 3,4 ETA 5/2024 AURREKONTU ALDAKETA ONESPENAK.

Idazkariak 2 eta 3/224 aurrekontu aldaketak onesteko 2024ko uztailaren 30eko txostenean eta 4 eta 5/2024 aurrekontu aldaketak onesteko 2024ko uztailaren 31ko txostenean xedaturikoa azaldu du.

### 2/2024 ALDAKETA: DIRU SARREREN KREDITUAK SORTZEA

GASTUA:		
1 1612 6230001	KONTAGAILU DIGITALAK	165.204,15 €
FINANTZAKETA:		
1 7505001	ATXIKITAKO FINANTZAKETA DUEN GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	165.204,15 €



## ARANTZAKO UDALA

### 3/2024 KREDITU GEHIKUNTZAK (ATXIKITAKO FINANTZAKETA DUEN DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOTIK)

GASTUA:		
1 1612 6230001	KONTAGAILU DIGITALAK	44.700,00 €
FINANTZAKETA:		
1 8701001	ATXIKITAKO FINANTZAKETA DUEN GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	44.700,00 €

### 4/2024 ALDAKETA: DIRU SARREREN KREDITUAK SORTZEA

GASTUA:		
1 3322 6400002	ARTXIBOA ORDENATZEA	1.887,60 €
FINANTZAKETA:		
1 7508002	ARTXIBOA DIGITALIZATZEKO DIRULAGUNTZA	1.887,60 €

### 5/2024 KREDITU GEHIKUNTZAK (ATXIKITAKO FINANTZAKETA DUEN DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOTIK)

GASTUA:		
1 3322 6400002	ARTXIBOA ORDENATZEA	1.387,60 €
FINANTZAKETA:		
1 8701001	ATXIKITAKO FINANTZAKETA DUEN GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	1.387,60 €

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- 2, 3, 4 eta 5/2024 aurrekontu aldaketei onespena ematea.

2.- 3 eta 5/2024 aurrekontu aldaketen akordioa udaleko iragarki taulan argitaratzea 15 egun NATURALETAN bizilagun eta interesdunek hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.

3.- Jendaurreko epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoa egingen da aurrekontu aldaketa.

#### 4. ALKATE EBAZPENAK..

2024ko 112tik 118ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

Halaber, hurrengo osoko bilkura irailen izanen dela jakinda eta ondorengo akordioak lehenbailehen hartzea komenigarria dela ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, osoko bilkurara bertaratuko kideek, gehiengo osoa izanik, AHO BATEZ onartu dute hurrengo bi puntuak osoko bilkura honetan eztabaidatzea:



## ARANTZAKO UDALA

*\*Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 76. artikuluan eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera, parte ez hartzeko betebeharrari dagokionez, Ana Maeztu Villanuevak osoko bilkuren aretoa utzi du.*

### **5. PELLE TTIKI HAURTZAINDEGI ZERBITZU KONTRATUA EBAZTEA ONESTEA.**

Idazkariak azaldu du Arantzako Udalak 2021eko ekainaren 22an egindako osoko bilkura arruntean aho batez onetsi zela Pelle Ttiki haurtzaindegiaren zerbitzu kontratua Magalako Ttikiak, S.L. enpresari esleitzea.

Aipaturiko zerbitzu kontratua arautzen duen plegu arautzailearen 7. klausulan xedaturikoaren arabera, honako hau gehienez ere bortz urtez zabaltzeko aukera zegoen. Haurtzaindegi zerbitzuaren arrakasta eta Magalako Ttikiak, S.L. enpresak emandako arreta egokia ikusirik, zerbitzu kontratua bi aldiz luzatu zen. Hala nola, aipaturiko enpresak 2021-2022, 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetan eman zuen lanean.

Bigarren luzapena bukatu aitzinetik, 2024ko martxoaren 26an Jaione Aguinaglade Ugaldek Magalako Ttikiak, S.L. enpresaren izenean zerbitzu kontratua berriz ez luzatzeko nahia adierazi zuen. Izan ere, bertze jarduera batzuekin bateraezina egiten ari zitzairen Pelle Ttiki haurtzaindegian zerbitzua ematen jarraitzea.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 158. artikuluan xedaturikoaren arabera, prestazio jarraituko zerbitzu-kontratuetan, nahikoa izanen da unitate kudeatzailearen oniritzia fakturan edo nahikotzat jotzen den beste dokumentu batean, prestazioa behar bezala gauzatu dela ulertzeko. Era berean, zerbitzua behar bezala beteko zela ziurtatzeko paratutako bermeari dagokionez, plegu arautzaileko 34. klausulan xedaturikoaren arabera, kontratuaren berme epea bi hilabetekoa izanen da, amaitzen denetik (2024/07/31tik 2024/09/30era). Epe horretan kalterik edo gabeziarik dagoela egiaztatzen bada, hauek zuzentzeko eskatu ahal izanen zaio enpresa esleipendunari. Adierazitako epea igarotakoan, udalak eragozpenik formalizatu ez badu, obligazioak betetzen direla ziurtatzeko eraturako bermea itzuliko da.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Magalako Ttikiak, S.L.k aurkeztutako luzapenari uko egin diola jakinarazitzat hartzea eta emandako azken fakturaren arabera eskatutako zerbitzua egokitzat jotzea.
- 2.- 960,00 euroko behin betiko bermea itzultzea kontratua amaitzen denetik bi hilabeteko epean (2024/09/30), betiere instalazioetan kalterik edo galerarik antzematen ez badira.
- 3.- Erabaki hau Magalako Ttikiak, S.L.ri jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.



# ARANTZAKO UDALA

*\*Ana Maeztu Villanueva bilkura aretora sartu da.*

## **6. AMEKURRUN, ARGASTASORO ETA SORAETA PARAJEETAN OIHAN APROBETXAMENDUA EGITEKO BIGARREN ENKANTEA ARAUTUKO DUEN PLEGU ARAUTZAILEEN ETA PROZEDURA ABIARAZTEAREN ONESPENA, %10EKO BEHERAPENAREKIN.**

Idazkariak adierazi du Amekurrun, Argastasoro eta Soraeta parajeetan (1. Lotea) oihan aprobetxamendua egiteko enkantean eskaintzak aurkezteko epea 2024ko abuztuaren 2ko eguerdiko 14:00etan bukatu zela eta interesdun batek ere ez duela eskaintzarik aurkeztu.

Horrela bada, azaldu du Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 143.1. eta 166.2. artikuluetan xedaturikoaren arabera, bigarren enkantea egin daitekeela %10eko beherapenarekin:

- Kopurua: 121.227,62 €-ren %10eko beherapena → 109.104,86 €
- Bermea: 109.104,86 €-ren %2a → 2.182,10 €

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Amekurrun, Argastasoro eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamendua egiteko bigarren enkantea arautuko duen plegu arautzaileen eta prozedura abiaraztea onestea, %10eko beherapenarekin.

2.- Aipaturiko oihan aprobetxamendu salmenta enkantearen plegu arautzaileak eta plegu teknikoak Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea, 15 egun baliodun, interesdunek euren eskaintzak aurkez ditzaten.

## **7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 17:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

**ALKATEA,**

2024.08.02  
2 19:20:55  
+02'00'

Saturnino Larralde Ibarrola

**Ziurtatzen dut  
IDAZKARIA,**

Data: 2024.08.02  
18:26:11 +02'00'

Nagore Madariaga Iriarte

